

 kutxabank	KREDITUAK ETA MAILEGUAK DIBISATAN ETA KANPO MERKATARITZAREN FINANTZABIDEA	EPIGRAFEA 56
	Egun honetatik indarrean: 2019.01.08	1. orria 3(e)tik

Epigrafea	ERAGIKETA MOTA ETA KONTZEPTUA	KOMISIOA	
		%	Gutxie nekoa eurotan
56.1	Irekiera edota berriztapena (Printzipalaren edo mugaren gainean)		
	56.1.1 Hipoteka-bermea duten kredituak eta maileguak	2,00	600,00
	56.1.2 Kredituak, maileguak eta gainerako bermeak	3,00	100,00
	56.1.3 Kanpo Merkataritza finantzatzeko ildoak (1. oharra)	1,50	100,00
56.2	Eskuragarritasuna (Hiruhilekoa erabili gabeko batez besteko saldo naturalaren gainean) (5. Oharra)	1,00	
56.3	Azterketa-gastuak Emandako printzipalaren gainean (6. oharra)	2,00	160,00
56.4	Aldez aurretik baliogabetzea eta amortizatzea Baliogabetutako saldoaren gainean, bezeroak eskatuta	1,00	
	56.4.1 41/2007 Legeari atxiki gabeko maileguak eta hipoteka-kredituak		
	▪ Interes-tasa finkoarekin	4,00	
	▪ Interes-tasa aldakorrarekin	1,00	
	56.4.2 2/1994 Legeari atxikitako subrogazio kasuak (7. oharra)		
	▪ 2003-04-27 aurretik formalizatutako hipoteka-maileguak	1,00	
	▪ 2003-04-27 ondoren formalizatutako hipoteka-maileguak	0,50	
	56.4.3 Kontsumo-maileguen eragiketak		
	▪ 7/1995 Legeari atxikita		
	○ Interes-tasa finkoarekin	3,00	
	○ Interes-tasa aldakorrarekin	1,50	
	▪ 16/2011 Legeari atxikita (8. oharra)	1,00	
	○ Itzulketa aurreratuaren eta kontratuan adostutako amaieraren arteko aldia urtebete baino gehiagokoa bada	0,50	
	○ Itzulketa aurreratuaren eta kontratuan adostutako amaieraren arteko aldiak urtebete gainditzen ez badu	4,00	
	56.4.4 Gainerako aktibo-eragiketak		
	56.4.5 Atzera egiteagatiko konpentsazioa (9. oharra)		
	41/2007 Legeari atxikitako maileguak eta hipoteka-kredituak		
	▪ Maileguaren eta kredituaren 5. urtera arte	0,50	
	▪ Maileguaren eta kredituaren 5. urtetik aurrera	0,25	
56.5	Bermeen aldaketa Hipoteka-subrogazioa zordunaren aldaketagatik edo bermetarako baloreen aldaketagatik. Indarrean dagoen eragiketako mugaren gainean	2,00	600,00
56.6	Kreditu-kontuan gainditutakoak. (3. oharra)	1,00	7,00
56.7	Maileguen baldintza-aldaketagatiko edo berritzeagatiko komisioa, bezeroek hala eskatuta. (10. oharra)	2,00	100,00
56.8	Iraungitako posizio zordunak edo zorpeko zehatzak erreklamatzegatiko komisioa (11. oharra)		35,00

 kutxabank	KREDITUAK ETA MAILEGUAK DIBISATAN ETA KANPO MERKATARITZAREN FINANTZABIDEA	EPIGRAFEA 56
	Egun honetatik indarrean: 2019.01.08	2. orria 3(e)tik

- 1. oharra** Kanpo-merkataritzarako finantzazio-ildoak formalizatzen direnean, bai eurotan bai beste dibisetan, formalizatzean eta linea berritzen den bakoitzean ere irekitze-komisioa kobratuko da. Ildo horiek aukeran dute agiridun kredituak edo stand by-ak era eskusiboan edo gehigarrian zabaltzea. Inportazio edo esportazio eragiketa bat finantzatzen denean, Kreditu, Mailegu eta gainerako Bermeen komisioa aplikatuko da. Kasu guztietan finantziazioenak ez diren eta beste banku-zerbitzuei dagozkien komisioak aplikatuko dira.
- 2. oharra** Ondorio guztietarako kreditu-eragiketatzat hartuko diren kontu korronteko zorpeko zehatzetan irekiera-komisioa soilik jasoko da eta hori zorpeko saldo handienaren edo kontratuan espresuki adierazitako likidazio-aldi bakoitzean kontuak izandako kontabilitateko gehiegizkoaren gainean aplikatuko da. Kasu honetan 12,00 eurokoa izango da gutxienez. Kontuko zorpeko zehatzak gisa emandako kontsumorako kredituei ezingo zaie inolaz ere, 16/2011 Legeko 20. artikuluari jarraiki, komisioarekin batera diruaren legezko interesa baino 2,5 aldiz handiagoa izango den urteko tasa baliokidea aplikatu.
- 3. oharra** Indarrean dagoen mugaren gainean gainditutako saldoa sortzen den kasuetan, gainditutako saldo handienaren gaineko % 1,00ko komisioa aplikatuko da, likidazio-aldi bakoitzean erregistratuta, 7,00 euroko gutxienekoarekin. Kreditu-kontuan gainditutakoa kreditu-eragiketatzat hartuko da ondorio guztietarako.
- 4. oharra** Fede-emaile publikoaren esku-hartzeagatiko gastuak eta eskritura-gastuak bezeroaren kontura izango dira. Behar bezala justifikatuta egon daitekeen kanpo-izaerako beste edozein kontzeptu bezeroari jasanaraziko zaio osorik.
- 5. oharra** Eskuragarritasun-komisioa funtsen eskuragarritasuna bezeroaren aukerakoa den eragiketetan aplikatuko da.
- 6. oharra** Komisio horren hautematea ez da egokia izango etxebizitzaren hipoteka-bermea eta 150.253,03 euro arteko hipoteka duten pertsona fisikoen maileguen kasuan.
- 7. oharra** Aldez aurretik bertan behera uzteagatiko komisioa aplikatzeko 2/1994 Legeari erreferentzia egiten dieten interes aldakorreko hipoteka-maileguei eragiten dieten subrogazioetan muga hauek kontuan hartuko dira:
- Komisionik finkatu gabe aldez aurreko amortizazioa hitzartu denean, ez da horregatik inolako kopururik jasotzeko eskubiderik izango.
 - Gainerako kasuak
 - 2003-04-27 aurretik formalizatutako hipoteka-maileguak: % 1,00
 - 2003-04-27 ondoren formalizatutako hipoteka-maileguak: % 0,50

 kutxabank	KREDITUAK ETA MAILEGUAK DIBISATAN ETA KANPO Merkataritzaren Finantzabidea	EPIGRAFEA 56
	Egun honetatik indarrean: 2019.01.08	3. orria 3(e)tik

- 8. oharra** Kontsumorako kredituaren 16/2011 Legeari atxikitako kreditu eta maileguen kasuan (interes finkoko maileguetan soilik aplikatuko da), atzera egiteagatiko konpentsazioa ez da inoiz aldeztatik ordaindutako kredituaren zenbatekoaren % 1 baino handiagoa izango, aurreratutako ordainketaren eta kreditu-kontratuaren adostutako amaieraren arteko tartea urtebete baino gehiagokoa denean. Aldi hori urtebete baino txikiagoa bada, konpentsazioa ez da aldeztatik ordaindutako kredituaren zenbatekoaren % 0,50 baino gehiagokoa izango. Konpentsazioek ez dute kontsumitzaileak aurreratutako ordainketaren eta kreditu-kontratua amaitzeko adostutako dataren artean ordainduko zukeenaren interesaren zenbatekoa gaindituko.
- 9. oharra** 41/2007 Legeari atxikitako maileguak eta kredituak: 2007ko abenduaren 9aren ondoren sinatutako maileguak eta kredituak, egun hori barne, eta horietan hala jasotzen ez bada ere, aldeztatik amortizatzeko aukera, honako baldintza hauetako batzuk aldi berean gertatuz gero:
- Hipoteka-mailegua edo -kreditua izatea, hipoteka etxebizitzaren gainekoa izatea eta mailegu-hartzailea pertsona fisikoa izatea.
 - Mailegu-hartzailea pertsona juridikoa izatea eta zergak sozietateen gaineko zergan dimentsio txikiko enpresen zerga-erregimenean ordaintzea.
- 10.oharra** Maileguen baldintza-aldaketagatiko eta berritzeagatiko komisioa, bezeroek hala eskatuta, baldintza hauei jarraiki aplikatuko da: amortizatu beharreko saldoaren gaineko % 2,00, formalizatzerakoan aldi bakar batean kobratzekoa, 100 euroko gutxienekoarekin. Bezeroak honako hauei buruz eskatutako edozein aldaketari aplikatuko zaio: interes-tasa, erreferentzia-indizea, indizearen gaineko diferentziala, berrikusketa-sistema, berrikusketa-aldizkakotasuna, ordainketa-aldizkakotasuna, amortizazio-sistema edo kontratu berriaren igorpena ekar dezakeen funtsezko beste edozein elementu. Maileguaren epea zabaltzea xede duten hipoteka-maileguetako berritze-aldaketetan, komisioa amortizatu beharreko kapitalaren gaineko % 0,1ekoa izango da.
- 11.oharra** Iraungitako posizio zordunak edo zorpeko zehatzak erreklamatzegatiko komisioa Mailegu edo kreditua ez ordaindutako egoera bakoitzeko, eta ageriko kontuan gertatutako posizio zordun bakoitzeko, betiere bezeroarekin dagokion kudeaketa pertsonalizatua egin ostean (kudeaketa hori sinesgarriro jasota geratuko da), hori erregularizatzeko eskatuz, Iraungitako posizio zordunak edo zorpeko zehatzak erreklamatzegatiko komisioa sortuko da. Komisio hori kontuan likidatuko da, eta 35€-koa izango da haren zenbatekoa.